



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2016KO UZTAILAREN 21EAN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka
Arkaitz Fraile Quijera
Hanot Karrera Amondarain
Irati Ozaita Azpiroz
Maria Iciar Jauregui Huarte
Juan Luis Cid Conde
Eleuterio Sanchez Garcia
Victoria Rodriguez Feloaga

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

*Ibarran, **bi mila eta hamaseiko uztailaren hogeita batean** arratsaldeko seiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave*

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- 2016ko maiatzaren 26an egindako ohiko Udalbatza bilkuraren aktaren onarpena**
- 2.- 2016ko maiatzaren 30ean egindako ez-ohiko Udalbatza bilkuraren aktaren onarpena**
- 3.- 2016ko ekainaren 9an egindako ez-ohiko Udalbatza bilkuraren aktaren onarpena**
- 4.- 151/2016tik 242/2016ra alkate dekretuak jakinaraztea**
- 5.- 2015 urterako Kontu Orokorra eta Ondare Kontuaren onarpena**
- 6.- Udal eskumeneko zerbitzuak edo administrazio jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketa**

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 7.- 3/2016 Kreditu Aldaketaren espedientea, kreditu gehigarriak**
- 8.- Tolosako eta Ibarra Udalen artean hitzarmena sinatzea onartzea: 15.1 Tolosana azpiesparruko urbanizazioko mantenu lanen baldintzak arautzen dituen**
- 9.- Berastegitik Ibarraino Zelai errekan kolektorea egiteko eskaera egitea**
- 10.- Apattako Industrialdearen zabaltze eta bigarren fasearen garapenerako Ibarra AASS-en bigarren aldatari eginiko alegazioa erantzutea**
- 11.- Apattak Industrialdearen zabaltze eta bigarren fasearen garapenerako Ibarra AASS-en bigarren aldataren behin-behineko agiria onartzea**
- 12.- Euskararen Sustapenerako datu fitxategiaren aldatzea**
- 13.- Gazteen Partaidetza sustatzeko datu fitxategiaren eraketa**
- 14.- Ibarra Herri bideen inbentarioaren behin-betiko onarpena**
- 15.- Galde-erreguak**

LEHENENGOA:

2016KO MAIATZAREN 26AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2016ko maiatzaren 26ko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2016ko maiatzaren 26ko ohiko bilkurako akta.

BIGARRENA:

2016KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO EZ- OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2016ko maiatzaren 30eko ez-ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2016ko maiatzaren 30eko ez-ohiko bilkurako akta.

HIRUGARRENA:

2016KO EKAINAREN 9AN EGINDAKO EZ- OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2016ko ekainaren 9ko ez-ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2016ko ekainaren 9ko ez-ohiko bilkurako akta.

LAUGARRENA:

151/2016TIK 242/2016RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2016ko maiatzaren 26tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 151/2016tik 242/2016ra.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

BOSGARRENA:

2015 URTEKO KONTU OROKORRA ETA ONDARE KONTUAREN ONARPENA

Ikusi da espedientea.

Kontuan izanda 21/2003 Foru arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateetako Aurrekontuei buruzkoak, 63 art.an dioena betez, Kontuen batzorde bereziak txostena bidalita, 2016ko maiatzaren 9an, jendaurrean jarri zen 2015eko Udalaren Kontu Orokorra.

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Argitara eman zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2016ko maiatzak 13, 90 zk.) eta udalaren ediktu-oholean. Ez da aurkeztu erreklamazio nahiz oharrik.

2016ko uztailaren 15eko Kontuen eta Ogasunaren Batzorde Bereziaren irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea 2015eko ekonomia ekitaldiari dagokion kontu orokorra eta ondare kontua.

BIGARRENA: Espedientearen kopia bidaltzea Kontuen Euskal Epaitegira.

SEIGARRENA:

UDAL ESKUMENENKO ZERBITZUAK EDO ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.

Ikusi da espedientea.

Alkateak proposatu du egungo tarifak mantentzea 2015-2016 ikasturterako bai kultur tailerretan bai kirol ikastaroetan, kontuan izanda EAEko KPIren aldaketa 2015eko uztailaren 1etik 2016ko ekainaren 30era. Horrez gain, proposatu du, kirol ikastaroen prezioak aldatu gabe, urte osorako tarifak ezartzea, hau da, hiruhileko tarifa kendu egingo da.

Bestalde kirol ikastaroetako aplikazio arauak aldatu egingo dira. Horiek I eranskinean jaso dira.

Kontuan izanda 7/1985 legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 49, 70.2 eta 111 art.etan eta Toki erregimenaren arloko Testu Bateginak 56 art.an xedaturikoa,

2016ko uztailaren 15eko Kontuen eta Ogasunaren Batzorde Bereziaren irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Hasierako onarpena ematea honako tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalaren aldaketari: 2016-2017 ikasturterako kirol ikastaroak. Ikastaro horiei urteko tarifa ezarriko zaie

2016/07/21

4



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

eta ez hiruhilekoak orain bezala. Dena den, ikastaroaren prezioa ez da aldatuko. Bestalde kirol ikastaroetako aplikazio arauak aldatu egiten dira. Horiek I eranskinean jaso dira.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea interesatuen entzunaldira hogeita hamar eguneko epean eta iragarki taulan nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea, uztailearen 5eko 11/1989 Foru Arauak 16.1, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak 16.1 art.an xedaturikoari jarraiki interesdunek alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA: Alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin betikotzat joko da udal eskumeneko administrazio jarduerak edo zerbitzuak emateagatiko tasaren aldaketa.

I.- ERANSKINA

B.2. KIROL ESKOLAK

Urteko Tarifak:

1. Bazkideak

<i>Multifitnes</i>	<i>199,71 €</i>
<i>Pilates</i>	<i>199,71 €</i>
<i>Gimnasia 3. adinekoentzat</i>	<i>doan</i>
<i>Yoga</i>	<i>193,77 €</i>
<i>Cycling</i>	<i>199,71 €</i>
<i>Tai-Chi</i>	<i>193,77 €</i>
<i>Bosu-Gap</i>	<i>199,71 €</i>
<i>Abdominal hipopresiboak</i>	<i>99,84 €</i>
<i>Eskalada</i>	<i>199,71 €</i>
<i>Arte martzialak</i>	<i>199,71 €</i>
<i>Zumba</i>	<i>199,71 €</i>

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2. Bazkide ez direnak

<i>Multifitnes</i>	<i>275,13 €</i>
<i>Pilates</i>	<i>275,13 €</i>
<i>Gimnasia 3. adinekoentzat</i>	<i>doan</i>
<i>Yoga</i>	<i>275,13 €</i>
<i>Cycling</i>	<i>275,13 €</i>
<i>Tai-Chi</i>	<i>275,13 €</i>
<i>Bosu-Gap</i>	<i>275,13 €</i>
<i>Abdominal hipopresiboak</i>	<i>137,55 €</i>
<i>Eskalada</i>	<i>275,13 €</i>
<i>Arte martzialak</i>	<i>275,13 €</i>
<i>Zumba</i>	<i>275,13 €</i>

Aplikazio arauak:

1.- Izen emateak udal kiroldegiko bulegoetan egingo dira, bulego orduetan eta inprimakia beteta. Ordainketak helbideratu egingo dira.

2.- Ikastaroak bederatzi (9) hilabetekoak dira. Urrian hasiko dira eta ekainean amaitu. Ikastaroak ordainketa bakarrean ordainduko dira, hau da, urte guztiko kuota ordainketa bakarrean egingo da. Izena ematen dutenak behartuta daude bukatu arte jarraitzera.

3.- Udalak ikastaroak otsaila hasieran kobratuko ditu. Kobraketa horretan ikasturte osoko kuota kobratuko du emandako kontu korrontean

*4.- Ikastaroetan baja emateko eta dirua bueltatzeko arrazoi **bakarra** eta justifikatua onartuko da: lesioa. Baja onartua izan dadin mediku-txostena ekarri beharko da, non adieraziko den lesioaren arrazoia eta ikastaroa ezin egin ahal izanaren arrazoia. Justifikanterik aurkeztu ezean ez da dirurik bueltatuko.*

5.- Bajaren ondorioz bueltatzen den diru kopurua kuotarekiko proportzionala izango da, hau da, eskaera aurkeztu den hiletik bukaerara arte falta den denborari dagokiona.

6.- Ikastaroa egin ahal izateko gutxieneko partaideak (8) behar dira ikastaro bakoitzean. Behin ikastaroa hasita izena ematen dutenek hilabete osoei dagokien proportzioan ordainduko dute.

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

7.- U.K.I ek eskubidea dute irakasleak aldatzeko arrazoi justifikagarriengatik. Inola ere ez da itzulketarik egingo monitoreo aldatzeagatik.

8.- Matrikula garaian egutegi bat emango da, ahalik eta zehatzena, ikastaroaren hasiera data, bukaera, jai egunak... azalduz.

ZAZPIGARRENA:

3/2016 KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIAK

Udal honen 2016ko ekitaldiko aurrekontuaren barruan **kreditu gehigarri** bidezko kreditu-aldaketa egiteko bideratzen ari den espedientea ikusi da.

Kontusailen kreditu-gehikuntzen proposamenak eta gehikuntza horiek finantzatzeko baliabide-proposamenak eta, halaber, txostenak, ziurtagiriak eta dokumentu horren barruan egindako gainerako jarduketak aztertu dira.

Gastuak egin beharra premiazkoa dela aski egiaztatuta dagoela kontuan hartu da, bai eta gehikuntza horiek finantzatzeko baliabideen eraginkortasuna ere. Horretaz gain, kontuan izan da kreditu-aldaketa horrek aurrekontuaren garapena errazten eta eragiten dituen zerbitzuen kudeaketa hobetzen lagundu behar duela.

Era berean, idazkari-kontuhartzailearen txostena ikusi da. Txosten horretan, espediente hori bideratzeko modua aplikagarri zaion eta indarrean dagoen lege-araudietara egokituta dagoela jaso da.

*Batzorde honek espediente horren aldeko txostena eman du eta egoki deritza Alkate Dekretuak **92.221,00 euroko** kreditu-gehikuntza eta gehikuntza hori finantzatuko duten baliabideen kopuru bera onesteari, proposamenetan ageri den xehekapen beraren arabera.*

2016ko uztailaren 15eko Kontuen eta Ogasunaren Batzorde Bereziaren irizpena kontutan izanik, Udaltzarak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea 3/2016 Kreditu aldaketa espedientea, kreditu gehigarrien bidez, eta udal honi dagokion aurrekontuari dagokiona

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ZORTZIGARRENA:

TOLOSAKO ETA IBARRAKO UDALEN ARTEAN HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA: 15.1 TOLOSANA AZPIESPARRUKO URBANIZAZIOAREN MANTENU LANEN BALDINTZAK ARAUTZEN DITUENA

2015eko irailaren 24ean Ibarra Udabatzak eginiko ohiko osoko bilkuran Tolosako Udalak Ibarra Udalari aurkezturiko 15.1 Tolosana Igerondo azpieroemua hiritartzeko proiektua onartu zuen. Izan ere, azpieroemua Ibarra udalerrian dauden 310m² barneratzen dira.

Bide batez, Ibarra lurretan eta aipaturiko azpieroemuaren barruan zegoen azaleraren mantenua eta kudeaketa bi udalen artean hitzartzea onartu zen.

Orain Tolosako hirigintza sailatik hitzarmen idatzia aurkezten dute alkateek sinatu aurretik Ibarra udalbatzaren oniritzia jasotzeko.

2016ko ekainaren 30eko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udabatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Ibarra Udabatzak, Tolosako Udalaren eta Ibarra Udalaren artean, 15.1 Tolosana azpiesparruko urbanizazioan mantenu lanen baldintzak ezartzeko hitzarmena sinatzea onartzea (I. eranskina)

BIGARRENA: Tolosako Udalak aurkezten duen hitzarmenaren testuan, lehen xedapenean honako testu hau gehitzea:

“Ondorioz, eremu zati horretan mantenimendu eskasarengatik hirugarren batek kalteak jasango balitu horien arduraduna Tolosako udala izango da.”

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman Tolosako Udalari.

II.ERANSKINA

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

“GL15066

GAIA: TOLOSAKO UDALA ETA IBARRAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA 15.1 TOLOSANA AZPIESPARRUKO URBANIZAZIO MANTENU LANEN BALDINTZAK EZARTZEKO.

Tolosan, 2016ko maiatzean.....

Nire aurrean, Jose Luis Unanue Ugalde, Tolosako Udaleko idazkaria.

BILDURIK

ALDE BATETIK: OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko Alkate-Lehendakaria.

BESTETIK: MIKEL AGIRREZABALA EZKURDIA Ibarra Udaleko Alkate-Lehendakaria.

ESKU HARTZEN DUTE

OLATZ PEON ORMAZABAL, Tolosako Udaleko Alkate-Lehendakari bezala, egintza honetarako 2016ko maiatzako hartutako erabakiaren ondoriozko ahalmenez baliatuta (haren ziurtagiria 1. eranskina da).

MIKEL AGIRREZABALA EZKURDIA , Ibarra Udaleko Alkate-Lehendakari bezala, egintza honetarako 2015ko ekainaren 13ko Udal-Korporazioaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren arabera hartutako erabakiaren ondoriozko ahalmenez baliatuta (haren ziurtagiria 2. eranskina da).

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA.-

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2015eko azaroaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuela behin betiko onespena ematea “15.1 Tolosana-Igerondo” azpiesparruko Urbanizazio Proiektu Aldatuaren Testu Bateginari.

Espediente honen harira, behin betiko onarpena eman aurretik Ibarra Udalarri bere edukiaren berri eman zitzaion, izan ere urbanizazioaren zati txiki bat Ibarra Udalaren lurretan dago. Ibarra Udalerriari eragiten dion azalera gutxi gorabehera hauxe da: 40 m2 espaloi, 130 m2 bide eta 140 m2 eremu librea. (eremua zehazten duen plano 3. eranskina da).

BIGARRENA.-

2015eko urriaren 7an, Ibarra Udalaren txostenak sarrera izan zuen eta bertan, hainbat aldaketa egitea eskatzeaz gain, bi herrien arteko eremu mugakideko mantenimendu baldintzak jasoko dituen hitzarmena sinatzea eskatzen zen.

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Tolosako Udalak Ibarra Udalaren ekarpenak ontzat eman zituen eta behin betiko onarpenaren erabakiaren baitan jaso ziren. Ekarpene horien artean Ibarra udalerrian kokatzen den azaleraren kudeaketa eta mantenua Tolosaren kargu izatea aipatzen zen, espaloia zatia eta Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion errepide mantenua izan ezik.

Azaldutako aurrerakinen ildotik, eta Tolosako Udalaren eta Ibarra Udalaren artean izandako elkarrizketen ondorioz, alde biek komenigarritzat jo dute Hitzarmen hau formulatu eta izenpetzea hurrengo estipulazio hauekin:

XEDAPENAK

LEHENA.- Tolosako Udalak konpromisoa hartzen du bere gain hartzeko berez Ibarra Udalaren eremuan aurkitzen den, baina Tolosako "15.1 Tolosana-Igerondo" azpiesparruko urbanizazioaren parte den eta 3. eranskinean zehaztuta dagoen eremuaren mantenu osoa, salbu oinezko espaloia eta errepidearena. Ondorioz, eremu zati horretan mantenimendu eskasarengatik hirugarren batek kalteak jasango balitu horien arduraduna Tolosako udala izango da.

BIGARRENA.-Bi udalerrien arteko mugak modu egokian eta argi uzteko, Tolosako Udalak seinale bidez adieraziko du muga errealitate hau.

HIRUGARRENA.-Etorbizun batean Ibarra mugetan aurkitzen den eramu honen erabilera aldatu nahiko balitz, bai Tolosako Udalaren, bai Ibarra Udalaren aldetik, alde biek hitzarmen berri bat egin beharko dute aldaketan nondik norakoak eta, bereziki, aldaketatik erator daitezken ondorioak eta bestelako baldintzak zehazteko.

Eta adostasuna adierazteko, alde guztiek agiri hau sinatzen dute, sinatzaileak halako aleak, eta ondorio bakar baterako, adierazitako toki eta egunean.

BEDERATZIGARRENA:
BERASTEGITIK IBARRARAINO ZELAI ERREKAN KOLEKTOREA EGITEKO ESKAERA EGITEA

Ibarra Alkateak eskatuta Berastegitik Ibarra Zelai errekan kolektorea egiteko ardura duten erakundeei lan horiek martxan jartzeko eskari dokumentu bat aurkezten da.

2016ko ekainaren 30eko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENA: Eskatzea Ur agentziari, "Gipuzkoako Saneamendu azpiegiturak egiteko Akordio marko" a sinatu zuten erakundeei eta haren jarraipen batzordeari; atzerapenik gabe Zelai ibaiaren kolektore lanak (Berastegitik Ibarraino) egiten hasteko (II. Eranskina)

BIGARRENA: Ibarra udalaren eskaeraren berri ematea Zelai erreka igarotzen den herrialdeko Udalei.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman; Eusko Jaurlaritzako URA Ur Agentziari, Aldundiko Ingurumenari eta obra hidraulikoak Departamentuari, Gipuzkoako Ur Kontsoltzioari, Berastegiko Udalari, Elduaiengo Udalari, Belauntzako Udalari eta Berrobiko Udalari

III. ERANSKINA

Zelai ibaia herri hauetatik igarotzen da: Berastegi, Elduain, Berrobi, Belauntza eta Ibarra, eta Tolosako Oria ibaiara iristen da. Ez du, oraingoz, ibaian gora saneamendu kolektore sistemarik Ibarra.

Kolektore eza horrek ingurumenari eragiten dio eta Ibarra herritarrek nahiz inguruetaokok ibaiaz gozatzeko dituzten aukerak murrizten dira. Herritarren parte-hartze prozesuetan, bai Tokiko Agenda 21 berrikustean bai hiri Antolamenduko Plan Orokorra egitean, herritarrek askotan eskatu dute kolektorea egitea.

Aipatu behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zuen azterketan, "Gipuzkoako Saneamendu azpiegiturak egiteko Akordio marko"aren baitan, bigarren mailako lehentasuna zuen azpiegituratzat jotzen zela, eta haren gauzatzea hitzarmena sinatu zuten administrazioen lankidetzaren erregimenean txertatu zela.

Akordio marko hori Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Añarbeko Ur mankomunitateak, Txingudiko Ur mankomunitateak eta Gipuzkoako ur Kontsoltzioak sinatu zuten eta 2007ko azaroaren 23an zabaldu egin zen. Akordio horren arabera, Zelai ibaiaren hodi-biltzailearen obrak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Ur agentziak, hartuko zituen bere gain. Hitzarmenaren indarraldia luzatzen zen beraz sinatzen zenetik hasi eta egiten zen azken proiektuko obraren kontratazioaren bitartean

El río Zelai transcurre por los municipios de Berastegi, Elduain, Berrobi, Belauntza e Ibarra hasta llegar al río Oria en Tolosa y carece hasta la fecha de un sistema de colector de saneamiento aguas arriba de Ibarra.

Esta carencia produce olores, afecciones al medio ambiente y reduce las posibilidades de uso y disfrute del río a los habitantes de Ibarra y de los municipios por donde discurre. En los procesos de participación ciudadana realizados en la revisión de la agenda local 21 y en la elaboración del Plan General de Ordenación urbana de Ibarra han sido muchas las veces que las ciudadanas y ciudadanos nos han reclamado la ejecución del colector.

Cabe subrayar que en el estudio realizado por la Diputación Foral de Gipuzkoa en base al "Acuerdo Marco Para la Construcción de Infraestructuras de Saneamiento en el Territorio Histórico de Gipuzkoa" se identificaba como infraestructura de saneamiento de prioridad dos y recogía su ejecución en el régimen de colaboración establecido entre las administraciones firmantes del convenio.

La ampliación del acuerdo marco suscrito por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, la mancomunidad de Aguas de Txingudi y Gipuzkoako Ur kontsoltzioa el 23 de noviembre de 2007 acordaba que las obras del interceptor del río Zelai serían asumidas y financiarían de manera íntegra por parte de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, Ur agentzia. Además el plazo de vigencia del convenio marco se extendía desde la firma del mismo hasta la liquidación y pago de la contratación de las obras del

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

eta ordainketa burutu arte.

Bestalde, akordio hori garatze aldera, beste garapen hitzarmen batzuk sinatu beharra ikusi zen erakunde kontratatzaile eta toki-erakunde onuradunen artean. Hitzarmen horietan zehaztuko ziren, hain zuzen ere, egitekoak ziren proiektuen arabera, horiek zer aurrekontu izango zuten, zer kontsignazio eta entitate sinatzaileen betebeharrak obra egoki amaitzeko.

Orain, hitzarmen hura sinatu zenetik urte asko igarota, Ibarra udalak ez daki EAeko Administrazio Orokorrek ze obra dituen aurreikusita Tolosaldean, eta zehatzago Zelai ibaiaren hodi-biltzailearen inguruan.

Beraz, Ibarra udalak 2016ko uztailaren 21ean eginiko Udabatzaren bilkuran, aho batez, erreklamatzeko die akordio markoa sinatu zuten erakundeei eta jarraipen batzordeari atzerapenik gabe hasteko Zelai ibaiaren kolektore lanak.

HAMARGARRENA

APATTAKO INDUSTRIALDEAREN ZABALTZE ETA BIGARREN FASEAREN GARAPENERAKO IBARRAKO AASS-EN ALDAKETARI EGINIKO ALEGAZIOA ERANTZUNA

Ibarra udalak 2016ko martxoaren 17an eginiko osoko bilkuran erabaki zuen hasierako onarpena ematea Apattako Industrialdearen zabaltze eta bigarren fasearen Garapenerako Ibarra AASSen Bigarren Aldaketari.

Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen argitaratu 2016ko apirilaren 21ean eta ondorengo aldizkarietan; Berria eta Diario Vascon apirilaren 19an eta Gara apirilaren 18n. Agiria jendaurrean jarri zen hilabeteko epean, horrela agintzen baitu ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko legeak 90.5. art.an.

Jendaurre aldia maiatzaren 23an amaitu zen eta alegazio bakar bat aurkeztu zen, Tolosako Udalak, maiatzaren 25ean 1004 erregistro zenbakiarekin aurkeztutakoa.

Tolosako Udalak aurkezturiko alegazioan honakoa adierazten zen:

2016/07/21

último de los proyectos que se ejecute.

Por otra parte, para el desarrollo del mencionado acuerdo se establecía la necesidad de suscripción de convenios de desarrollo entre el ente contratante y los entes locales beneficiados por las mismas. En estos convenios se concretarían a la vista de los proyectos de obras a ejecutar los presupuestos de las mismas, las consignaciones presupuestarias necesarias para su ejecución y las obligaciones que corresponden a las entidades firmantes para el buen fin de la obra.

En estos momentos, Tanscurridos años desde la firma del mencionado acuerdo, se desconoce por parte del Ayuntamiento de Ibarra la previsión de obras que la Admisnistración General de la CAPV tiene pendiente ejecutar en Tolosaldea y más en concreto de la mencionada obra de interceptor del río Zelai.

Por tanto por unanimidad el Ayuntamiento de Ibarra en acuerdo Plenario celebrado el de 21 de julio del 2016 , reclama a los entes firmantes del acuerdo marco y a su Comisión de seguimiento se inicien sin demora los pasos necesarios para poder finalizar la ejecución del colector del río Zelai.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1.- Apattako eremuaren iparraldean helburuetan jasotzen den hiriarteko parkea sortzeko, ordenazio xehatua zehaztuko duen Plan Bereziak urbanizatzeko eremua zehaztean kontuan hartu beharko du azpierenmuaren iparraldean dagoen azalera osoa nahiz eta azpierenmuaren kanpo egon.

2.- Mugikortasunari dagokionez, Apattaerreka industrialdearen hazkunde honek bide gorritz ere loturik egon beharko du Apatta kalearekin.

3.- Apattako bigarren fasea eta Tolosako hilerriko guneen artean loturaren bat egitea aztertzea.

Aurkezturiko alegazioa aztertu ondoren eta 2016ko ekainaren 30eko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea, Tolosako Udalak 1004 zenbakiarekin aurkezturiko helegitea.

BIGARRENA: Eskatzea Tailsari, aipaturiko arau subsidiarioen aldatetaren sustatzaileari, behin behineko onarpenerako aurkeztu beharreko dokumentuan honako ekipamendu eta urbanizazio baldintzak barneratzea:

-Hiri Antolaketako Plan Bereziak ezarri behar duen Hirigintza antolamendu xehatuan, poligonoaren handitzea Apatta kaleraino bidegorritz lotzea eta Tolosako hileriraino bidez jasoko da.

-Urbanizazio baldintzen barnean sartuko da gaur egun G2130Atik azpiesparruaren iparreko zonarako sarrera ematen duen pista egokitzea, industri poligonoaren irteera edo sarrera gisa erabili ahal izan dadin.

-Urbanizazio baldintzen barnean sartuko da azpi-esparruaren iparreak eta esparruaren barnean dauden lurzoruak egokitzea.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea Tolosako Udalari eta Tailsari.

HAMAIKAGARRENA

APARRAKO INDUSTRIALDEAREN ZABALTZE ETA BIGARREN FASEAREN GARAPENERAKO IBARRAKO AASS-EN BIGARREN ALDAKETAREN BEHIN-BEHINEKO AGIRIAREN ONARPENA.

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Jose Manuel Soto jn.ak, Tailsaren izenean Apatta industrialdearen zabaltze eta bigarren fasearen garapenerako Ibarra AASSen bigarren aldaketa izapidetzea eskatu zion Ibarra Udalari.

Indarrean dagoen Bigarren fasearen garapenerako Ibarra AASSen 1. Aldaketak, Apattaerrekaren eskualdeko industrialdearen zabaltzea ahalbidetzeko helburuari erantzuten zion. Horretarako, ibarbidearen behealdea lurrez bete, errekaostoen kanalizazioaren desbideraketa perimetrala egin eta GI-2130 errepedetik sarbideko lotura-erdia egitea beharrezkoa zen.

Lur betelana egiteko lurrak lortzeko zailtasunak daudenez eta hiritartze gastuak murriztu nahi direnez, Tailsak eskatzen du 2. aldaketa bat izapidetzeko non bazterten den GI-2130 errepedearekin lotura-erdia egitea.

Aldaketarekin, eremuaren azalera 344.501 m² izatetik 335.452 m² izatera pasatzen da. Aipaturiko azalaren aldaketak berekin dakartza baita ere, doiketa txikiak Ibarra eta Leaburu arteko mugaketan.

Ibarra udalak 2016ko martxoaren 17an eginiko osoko bilkuran erabaki zuen hasierako onarpena ematea Apatta Industrialdearen zabaltze eta bigarren fasearen Garapenerako Ibarra AASSen Bigarren Aldaketari.

Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara 2016ko apirilaren 21ean eta ondoengo aldizkarietan; Berrian eta Diario Vascon apirilaren 19an eta Garan apirilaren 18n. Agiria jendaurrean jarri zen hilabeteko epean, horrela agintzen baitu ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko legeak 90.5. art.an.

Erabakia 2016ko apirilaren 15ean ondoko herriei eta eskumen sektorialak dituzten herri administrazioei ere jakinarazi zitzaion; Tolosako eta Leaburuko udalei eta aldundiko Bide Azpiegiturako departamentuari eta URA agentziari.

Ingurumen tramitazioari dagokionez, Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako zuzendari orokorrak, 2015eko maiatzaren 11n emaniko ebazpen bidez erabaki zuen ez zela beharrezko ohiko ingurumen ebaluazio estrategikorik, eta egindako azterketaren arabera ondorioztatzen zen ez zuela ingurumenean ondorio esanguratsurik eragingo. Edonola ere, aldaketa txiki den honen garapenean, kontuan izango dira hauek: neurri zuzentzaile eta babes neurriak, EsECIA eta Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Zuzendaritzak eginiko txostenetan ezarritako gainbegiratze programa, hain zuzen , Apattaerrekaren zabaltze eta bigarren fasearen garapenerako Ibarra AASSen aldaketa onartu zenean eginikoa.

Jendaurre aldia maiatzaren 23an amaitu zen eta alegazio bakar bat aurkeztu zen, Tolosako Udalak maiatzaren 25ean aurkeztutakoa.

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarrako udalak alegazioa onartu zuen herritarrentzat azpieremuaren hiritartzea eta mugikortasuna hobetzea zuelako helburu.

Maiatzaren 31ean Gipuzkoako Aldundiko Bide azpiegituretako Departamenduak bere txostena bidali zuen eta bere eskumenei dagokienez onartzeko eragozpenik ez dagoela jakinarazi zuen.

Ekainaren 9an URA ur agentziak, Ibarrako udalak bi txosten jasoko dituela erantzun zuen: Uraren euskal agentziaren txostena eta Konfederazioak eginiko sektore txostena, Uren Legearen 25.4 artikuluan xedatutakoa betez.

Eskaria egin eta bi hilabete pasa direla ikusirik eta Apattako bigarren fasearen lehen aldaketa izapidetu zenean Ur Agentziak Apattako fasearen lehen aldaketari 2011ko uztailaren 12an aldeko txostena emititu zuela, baldintzekin bazen ere, behin behineko onarpena atzeratzeko arrazoirik ez dago eta prozesuan zehar jasoko dira aipaturiko txostenak.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Behin behineko onarpena ematea Apatta industrialdearen zabaltze eta bigarren fasearen garapenerako Ibarrako AASSen bigarren aldaketari.

BIGARRENA: Bidaltzea Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera eta COTPV-k egindako bilkuran ontzat emateko.

HAMABIGARRENA

EUSKARAREN SUSTAPENERAKO DATU FITXATEGIAREN ALDAKETA

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesa arautzen duena) 20. artikulua eta Eusko Legebiltzarreko 2/2004 Legearen 18. artikulua aintzat hartuta: Datuak Babesteko Euskal Bulegoan 2083150004 Erregistro zenbakia duen datu fitxategia, Euskararen Sustapenerako izenduna, aldatu behar da Ibarrako Udalak egun jarraitu behar dituen izapideetan eskatu behar dituen datuak kontutan izanik.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Datuak Babesteko Euskal Bulegoan 2083150004 Erregistro zenbakia duen Euskararen Sustapenerako izendun datu fitxategia 4..en eranskinean ezarritakoaren arabera.

BIGARRENGOA: Testu hau osoki Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 15/1999 Lege Organikoaren 20. 1 Artikuluak agindu bezala.

HIRUGARRENGOA: Erabakiaren berri ematea Datuen Babeserako Euskal Agentziari, horrela agintzen baitu 2/2004 Euskal Legebiltzarreko Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2 art.ak. Ondoren, Datuen Babeserako Erregistroan izen emango zaio da eta Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren Erregistroan sartuko da.

IV. ERANSKINA

Identifikazioa	EUSKARAREN SUSTAPENA
Helburua	Helburua: Udalerrian euskara sustatzea eta kudeatzea eta mota horretako jarduerak egiten dituzten elkarte nahiz norbanakoei emandako dirulaguntzen kudeaketa administratiboa
Fitxategiaren arduraduna	Ibarrako udala
Atala	Euskara eta Hezkuntza
ARCO eskubideak	Ibarrako udala
Nori eragiten dio	Elkarte eta norbanako
Datuen jatorria	Interesduna edo bere legezko ordezkaria
Biltze prozedura	Elkarrizketa eta formularioak
Erabilitako euskarria	Papera
Fitxategiaren egitura	Identifikazio datuak: Izen-abizenak, tel. NAN, helbidea, e-mail Ekonomiko finantzario eta aseguruak Banku datuak Bestelakoak (erakundeen legezko ordezkarien datuak)
Datuak lagatzea	Ez da aurreikusten.
Nazioarteko transferentziak	Ez da aurreikusten.
Segurtasun maila	OINARRIZKOA
Kokapena	Udaletxeko informatika sistemak eta artxiboa.

2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HAMAIRUGARRENA:
GAZTEEN PARTAIDETZA SUSTATZEKO DATU FITXATEGIAREN ERAKETA

Gazteen Partaidetza sustatzeko datu fitxategiaren eraketa, 2016ko ekainaren 9an buruturiko ez-ohiko Udalbatzan onartu zen. Ondorioz, puntu hau ez da bozkatzen, aurrez onaturik dagoen puntu bat baita.

HAMALAU GARRENA
IBARRAKO HERRI BIDEEN INBENTARIOAREN BEHIN-BETIKO ONARPENA

Udalbatzak, 2016ko maiatzaren 12an eginiko Osoko Bilkuran, *Ibarrako herri bideen inbentarioa behin-behineko onartzea erabaki zuen eta jendaurrean jartzea hilabeteko epean, iragarkia GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ematen den biharamunetik kontatzen hasita.*

Kontuan hartuta aipaturiko iragarkia GAOn 2016ko maiatzaren 19an argitaratu zela, erreklamazioak egiteko epea 2016ko ekainaren 20a bitartean irekita egon delarik.

Kontuan hartuta aipaturiko epe horretan ez dela alegaziorik egin, baina guztira 16 herritar gerturatu direla euren kezka azaltzera eta lau puntutan aldaketa egin dela (ikus Conchi Uriarteren memoria).

Kontuan hartuta Conchi Uriartek jada aurkeztu duela behin betiko inbentarioaren lana.

2016ko uztailaren 19an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Conchi Uriartek egindako herri bideen inbentarioa behin betiko onartzea.

BIGARRENA: Irizpen honen berri Udalbatzari ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

HIRUGARRENA: Behin betiko herri bideen inbentarioa GAOn argitaratzea.
2016/07/21



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HAMABOST
GALDE-ERREGUAK

Ez dago inolako galde-erregurik.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko seiak eta hogeita zortzi direnean. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.